

Aske izatea beste aukerarik ez daukat. Horrek esan nahi du ezin aurkituko zaiola nire askatasunari mugarik, nire askatasuna bera ez besterik, edo, nahiago baduzue, ez garela aske izateari uzteko aske. [...] Giza errealitatearentzat, izatea bere burua aukeratzea da; ez datorkio ezer kanpotik, ez eta barrutik ere, hark jaso edo onartu lezakeenik. Xehetasunik txikieneraino izate bihurtu jasanezin horretan abandonatuta dago erabat, babesgabe, inolako laguntzarik gabe. Hala, askatasuna ez da izate bat: gizakiaren izatea da, hots, gizakiaren izate eza. Gizakia hasieratik oso-bete kontzebituko balitz, absurdoa litzateke hura aske deneko halako une edo eremu psikikoren bat bilatu nahi izatea gero harengan: ontzi bat mukuru bete ondoren bertan hutsa bilatu nahi izatearen pareko zerbait. Gizakia ezin izan daiteke batzuetan aske eta besteetan esklabo: oso-osoan eta beti da aske, edo ez da gizaki.

J.P. Sartre: *Izatea eta ezereza.*